

'OK Kontua' duten **65 urtetik** gorako bezeroentzat izango da

Kutxabankek doako tele-erosketa eta tele-farmazia zerbitzuak emango dizkie adinekoei

- Eskaintzak farmaziako bi zerbitzu eta kontsumoko gaiak eskuratzeko erosketa bat emango ditu.

2020ko maiatzaren 13an. Kutxabankek 'Ok Kontua' duten **65 urtetik gorako** bezeroei etxera doako erosketa zerbitzuak eramango dizkie. Hain zuzen ere, supermerkatuan erositako lehen beharreko gaien zerbitzu bat, eta farmaziako produktuen bi entrega eskainiko dizkie datozen bi hilabeteetan.

Tele-farmaziako eskaintzak kontuaren jabe bakoitzari bi zerbitzu emango dizkio, eguneko 24 orduetan eta asteko 7 egunetan, Espainiako edozein lekutan. Zerbitzua jaso nahi duten erabiltzaileek 91 999 25 24 **telefonora** deitu beharko dute, behar duen sendagaia zehaztu eta beharrezkoa balitz errezeta eman. Espezializatutako enpresa batek egingo du erosketa eta bera arduratu da etxera eramateaz.

Kontsumoko gaien erosketa ere modu beretsuan egin ahal izango da, **zenbaki bera** erabiliz. Etxean erosketa hori jaso nahi dutenek, behar dituzten produktuen zerrenda zehaztu beharko diote enpresari, eta erosketa egiteko behar den dirua eman. Etxera eramango da erosketa osoa, eta erositakoaren zenbateko zehatza baino ez da ordainduko.

369.000 bezerotik gora ditu Kutxabankek adinekoen tartean. Hauek gune digital berezitua dute, **%100 Kutxabank** izeneko, Bankuak ematen dien balio-eskaintza osoaren berri jaso dezaten, finantza-erakundearentzat segmentu garrantzitsua baita adinekoena.

Adinekoentzat tele-farmaziako eta tele-erosketako zerbitzuak, krisiaren eraginak samurtzeko Kutxabankek abian jarri dituen neurrietako bi baino ez dira, Koronabirusaren krisialdiak jotako norbanako, familia eta enpresei laguntzeko asmoarekin.